

BERMEOKO AURREKONTU PARTE-HARTZAILEAK 2017 PARTAIDETZA BURUTZEKO ARAUAK

1.- Arrazoa

Lege aginduak betetzeaz gain, Bermeoko Udalak, kultura parte hartzailea bultzatu gura dau eta, horregaz batera, erabagi zehatzak hartzeko ahalmena emon herritarrei eurei, jagoken subiranotasuna itzultze aldera, eta kudeaketa gardenaren printzipioa oinarri izanda.

2.- Helburua

Prozesu zehatz honen bidez, Bermeoko Udalak 200.000 euroren erabilera erabagiteko ahalmena emoten deutse herritarrei. Horretarako, lehenik eta behin, proposamenak aurkezteko aukera emongo da, aukera ezbardinaz aztertu eta baloratuko dira eta bideragarriak diran proiektuen artean, bozketa bidez erabagiteko ahalmena egongo da.

3.- Xedea

3.1. Bozketan sartuko diran proposamenak, inbertsinoak burutzeko izango dira (azpiegiturak, obrak, berreraikitzeak, konponketak, proiektuen idazketa, etab.). Beraz, bozketatik kanpo geratuko dira zerbitzuak ezarteko proposamenak edo bestelako gastu arruntak.

3.2. Proposamenak interes orokorrekoak izango dira kasu guztietan, eta herriaren edo herritarrengan modu orokorrean euki beharko dabe eragina, interes partikularrak alboratuta. Interes orokor hori espresuki justifikatu beharko da proposamena aurkezterakoan.

3.3. Proposamenak udal eskumendun inbertsinoak egiteko izango dira. Hori horrela kanpo geratuko dira beste erakunde edo administrazioetako eskumenen esparrukoak badira.

4.- Eskubideak

Honako eskubide honeek eukiko dabez parte hartzaileek:

- 1.- Proposamenak aurkezteko beharrezko laguntza eta informazioa eskuratzeko eskubidea.
- 2.- Bozkatu ahal izateko beharrezko laguntza eta informazioa eskuratzeko eskubidea.
- 3.- Egoki ikusten diran proposamenak aurkezteko eskubidea.
- 4.- Erroldatuta dagozan 16 urtetik gorako herritarrek boto bakar bat emoteko eskubidea eukiko dabe.



- 5.- Bozketaren emoitzea errespetatzeko eskubidea.
- 6.- Bozketaren ondorioz exekutatu beharreko proiektuaren egoera uneoro ezagutzeko eskubidea.

5.- Prozesuraren faseak

Aurrekontu Parte-hartzaileen prozesuak fase honeek eukiko dauz:

- 1.- Proposamenak aurkeztea.
- 2.- Proposamenak aztertea.
- 3.- Proposamenak bozkatzea.
- 4.- Proposamenen exekuzioaren jarraipena.

5.1. Proposamenak aurkeztea:

Fase honetan erroldatutako 16 urtetik gorako edonork bere proposamena edo proposamenak aurkezteko aukerea izango dau.

Proposamenak aurkezteko Bermeoko Udalak prestatutako eredia erabili ahal izango da eta, eredu hori erabiliko ez balitz, eredian bertan jasotako atal guztiak barru hartu beharko dauz aurkeztutako proposamenak.

Halan egingo ez balitz, proposamena zuzenean baztertuta geratu ahal izango da.

Bardin gertatu ahal izango da aurkeztutako proposamenak ez badabez 3. puntuan (Xedea) jasotako baldintzak beteten, hurrengo urteetan aurrekontuak egiterakoan kontuan hartzearen kalte barik.

Proposamenak Berhaz bulegoan aurkeztu edo email bidez bialtzeko aukerea egongo da.

5.2. Proposamak aztertea:

Behin proposamenak aurkezteko epea amaituta, Bermeoko Udaleko, tekniko eta talde politikoen ordezkariak osatutako mahai batek proiektu bakotxa aztertu eta baloratuko dau.

Proposamenei oneritxia emoteko honako erispideak erabiliko dira:

- .Interes publikoari erantzutea, ez interes pribaduari.
- Udalaren konpetentzia edo ahalmenekoa izatea.
- Teknikoki bideragarria izatea
- Aurreikusitako diru kopuruagaz bateragarria izatea.
- Inbertsino moetak proposamena izatea.
- 2017. urtean exekutatu ahal izatea.
- Proiektuak legediagaz bat etortea.



Proposamenak 2017 urteko aurrekontuetan aurreikusitako partidan sartzeko aukerarik ez badauka aurreko erispideak beteten ez dauzalako edo epe luzerako proiektu bat dalako, hurrengo urteetako aurrekontuak egitean aztertu eta baloratzeko konpromisoa hartzen da.

Mahai honen oneritxia jasoten daben proiektuak izango dira bozketa fasera pasatuko diranak, udaleko sail ezbardinek proposatutako bestelako proiektuak sartzearen kalte barik.

5.3. Proposamenak bozkatzea:

Behin azterketa fasea burututa, bozketa fasera pasatzen diran proiektuen ganeko informazioa emongo jake herritarrei, honeek informazio gehigarria eskuratzeko daukien eskubidea kaltetu barik.

Informazioa zabaldu ondoren, bozketa epea zabalduko da eta epe horretan, Bermeon erroldatutako 16 urtetik gorako herritar guztiek boto bakarra emoteko aukerea eukiko dabe, boto horren bidez udalak egoki ikusten dauen proiektu kopurua babesteko aukereagaz, eta teknikoki egokien ikusten dan eran kontrolatuko dana.

Bozketa horretarako finkatutako leku eta ordutegian egin ahal izango da eta, bozkatzaileek, botoa emoteko beharrezko laguntza eskatu ahal izango dabe.

Bozkatzeko, Bermeoko Udalak prestatutako papeletak erabili beharko dira. Horreek barik beste batzuk erabiliko balira, botoa balio gabeko lez emongo da.

Bozketako emoitza lotesleak izango dira Udalarentzat, eta babes gehien lortu dauen proiektua exekutatu beharko da derrigor.

Proiektu irabazlea exekutatzek prozesu honetara bideratutako kopuru osoa ez gastatzea suposatuko baleu, boto emoitzen hurrenkerea jarraituta eta kopuru erabilgarria alderatuta, proiektu gehiago exekutatu dira, 200.000 euroko kopurua amaitu arte, batez be irabazi ez daben proiektuek emondako boto kopuruaren artean %10eko babesa lortu badabe, gitxienez.

Beste proiektuek botoen portzentaje hori eskuratu ez balebe, Udalak erabagiko leuke gerakina zeintzuk inbertsinoetara bideratu.

Bozketan berdinketa emongo balitz, lehentasuna eukiko leuke suposatuko dauen diru kopuruagaitik, beste proiektu batzuk exekutatzeko aukera emoten dauenak, beti be beste proiektuek % 10aren babesa lortu badabe bozketan.

Berdinketa modu horretan erabagi ezingo balitz, lehentasuna eukiko dau proposamenak aurkezteko inprimakian jasotzen diran arloetatik gehien sustatzen dauzanak, proiektuak aztertzeko osatutako mahaiaren eritxiz finkatuko dana.



Horrela be berdinketa ezin izango balitz ebatzi, proiektuak aztertzeko mahaiak egoki eristen dauana ebatziko dau.

Udalaren esku egongo da irabazlea izan dan proiektuaz gain besteren bat exekutatzeari nahiz eta 200.000 euroko kopurua gainditu, aurreko erispide guztiak beteta.

Irabazten ez daben proiektuak, hurrengo urteetako aurrekontuak egiterakoan kontutan hartuak izango dira, botoemaileen %10aren babesa lortu badabe.

5.4. Proposamenen exekuzioaren jarraipena:

Bozketa bidez aukeratutako proiektua(k) esleitu ondoren, Udalak exekuzioaren ganeko informazioa emongo dau uneoro, bai web gunea eta baita be egoki eristen diran beste erreminta batzuk erabiliz, eta herritarrek edozein momentutan informazioa eskuratzeko eskubidea euki dabe, herritarren partaidetza sustatu asmoz eta benetan bermatuta geratu daiten.

Bermeon, 2017ko apirilaren 12an.

PROZEDURAREN KRONOGRAMA:

- 1.- Proposamenak aurkeztea: apirilaren 24tik maiatzaren 14ra.
- 2.- Proposamenen azterketa: maiatzaren 15etik ekainaren 18ra.
- 3.- Proposamenen bozketa: ekainaren 19tik uztailaren 2ra.

